

AKITANIA, EUSKADI ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATEEK HITZARMENA IZENPETU ZUTEN ATZO BORDELEN

Mugaz gaineko hamar unibertsitatek elkarlana bultzatuko dute

■ Akitania-Euskadi-Nafarroa fondoak hamar unibertsitateetako errektoreak bildu zituen atzo Bordelen egindako ekitaldian

■ Europa sortzen ari dela eta, esperientzia eredugarria bultzatu nahi luke bi eskualdeek irakaskuntza sistema berdintzeko

■ Helburu zabalak izan arren, ez da aurrekontu berezirik izaneren hitzarmenean bildutakoak obratzeko

Lutxi Fourcade / Bordele

MUGAZ BI ALDEETAKO unibertsitateen arteko harremanak sendotzeko nahikaria adierazi zuten Akitaniako, EAeko eta Nafarroako errektoreek atzo Bordelen: bertako lau unibertsitateetako errektoreek, Paueko unibertsitatekoak, Nafarroako Unibertsitateko nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreek, Deustuko Unibertsitatekoak, Euskal Herriko Unibertsitatekoak eta Mondragon Unibertsitatekoak. Hitzarmen bat izenpetu zuten hamarrek atzo goizean Akitania Eskualdearen egoitzan. Konbenio horren arabera, errektoreek bat egin dute lankidetzaren sustatzeko eta ikasleen eta irakasleen trukeak bultzatzeko.

Izenpetutako hitzarmenari esker, unibertsitateek indar berri bat eman diote aspalditik hasitako lan bati. Hain zuzen, hiru eskualdeetako unibertsitateen arteko harremanak abiatu ziren 1991n. Aurreko urtean, Akitania-Euskadi fondoak sortu zen eta bi egituretako lehendakariak funtsezkotzat jo zuten unibertsitateen arteko sare bat sortzea. Nafarroa ere sartu zen batzordean 1992an. Unibertsitateen batasunaren helburua zen mugaz gaineko unibertsitateetako dosierak ikertzea eta proiektuak bultzatzea.

Mugaz gaindikoa hobeki ezagutzeko

Europa osatzen ari dela eta, irakaskuntza sistema berdintzeko beharra ikusi zuten errektoreek. «Nahiz eta ondolan bizi, zailtasun ugari daude formakuntza sistemen artean, eta mugaz gaineko egitura baliatu behar dugu geroa prestatzeko», azaldu zuen Josy Reifferssek, Bordele 2 unibertsitateko lehendakari eta batzordeko ordezkariak. Ondorioz, proiektu jakin batzuk elkarrekin eramateaz gain, benetako elkarlana sor-



LUTXI FOURCADE

Mugaz gaineko unibertsitateetako errektoreak atzo Bordelen akordioa sinatzen.

akordioaren mamia

Loturak sakontzeko

■ Akitania, Euskadi eta Nafarroako unibertsitate edo goi mailako hezkuntza erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmenaren helburu zehatzak txosten batean adierazirik daude. Hauek dira:

Irakasleen mugikortasuna sustatzea • Unibertsitateko irakasleen, ikasleen eta administrazioako langileen mugikortasuna sustatuko da, ikasketei mugaz gaindikoa neurria eman eta lanaren kalitatea hobetzeko.

Ikasleen mugikortasuna bultzatzea • Hitzarmenak aukera eman du ikasketen parte bat hitzarmenean partaide den beste eskualde batean burutzeko, irakaskuntzari mugaz gaindikoa izatera emanez.

Harremanak garatzea • Ikasleen arteko harremanak garrantzitsuak dira, euren heziketari mugaz gaindikoa izatera emanez.

Mugaz gaindikoa eremu bat • Tituluaren eta bestelako kualifikazioen onarpen akademikoa bultzatuko da, mugaz gaindikoa eremu bat sortzeko hezkuntzaren arloan.

Doktore tesiak • Elkarlanean zuzendutako doktore tesiak sortuko dira, eta mugaz gaindikoa eremu horretako erakundeen arteko titulazio bikoitzak sustatuko da.

Informazio trukea • Informazio eta esperientzia trukea sendotuko da, hitzarmenean partaide diren eskualdeetako hezkuntza sistemen desberdintasun eta berezitasunak elkar aberasteko eta akuilatzeke iturri izan daitezkeen.

Enpresa mundua inplikatzeko • Irakasleen eta tituludun berrien praktikak bultzatuko dira, dela enpresetan, dela bestelako erakundeetan.

tzeko proiektua landu zuten errektoreek. «Asmoa genuen bideak errazteko eskualde honek ikasketako eskaintzen dituen aukera ugariak erabiltzeko eta eskualde honen mugaz gaindikotasuna hobeto ezagutzeko», gaineratu zuen. Haren aburuz, Akitania-Euskadi-Nafarroa mugaz gaindikoa eskualdearen ekonomia eta gizartea ziztu bizian aldatuz doaz eta ondorio nabarmenak izango dira hezkuntza eta irakaskuntza sistemetan. «Ondotik, aurrez aurre jarriko dira aldatzen ari diren eskariak eta erronka berriak», azaldu zuen.

Helburu zabalak izan arren, ez da aurrekontu berezirik izaneren hitzarmena errektoreek ahal bereziak aurkitu beharko dituzte proiektuak gauzatzeko. Era berean, zenbait lan egingen dute administrazioari begira; esaterako, tituluak Europa osoan baliagarri izatea nahi dute.

Alain Rousset:
«Erakutsi behar dugu harreman sendoak sor daitezkeela»

■ L.F. / Bordele

Mugaz gaineko lankidetzaren bultzatzea izan du lehentasunetako bat Alain Roussetek, Akitania eskualdeko lehendakariak. «Erakutsi behar dugu mugaz gaineko harreman sendoak sor daitezkeela Europa eratzen ari den une honetan», azpimarratu zuen.

Xede hutsetatik urrunago joateko, Alain Roussetek bi elkarlan proposamen zehatz egin zituen geroari begira. Lehendabizi, lankidetzaren zientifikoa garrantzitsu beharra goraipatu zuen. «Horrengatik, informazioa ibiltzeko sare moderno bat sortu beharko dugu eta urrats garrantzitsuak izanen da ikerlarien arteko harremanak sendotzeko eta azkartzeko», azaldu zuen.

Bigarren proposamena, berriz, erabat iraultzailea dela gaineratu zuen. Hain zuzen, partikula azkartzeko sistemen erakuntza aipatzen delarik Europar zehar, Alain Roussetek proposatu zuen denen indarra biltzea *Soleil* sistema erdiespazioan. «Akitania-Euskadi-Nafarroa biltzeaz gain, behar genuke Poitou Charentes eta Midi Pyrenes eskualdea konbentzitu gurekin etortzeko. Ondotik, proposatuko dugu inbertsioaren erdia biltzea, hala nola 800 milioi libera, ikerketen tresna paregabekoa izateko gure ikerlarientzat», azaldu zuen.

Akitaniako lehendakaria sartu da harremanetan CNRS ikertzaileen zentroarekin dagoeneko eta ideia begi onez ikusi zutela azpimarratu zuen.